

erren la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN

**IRAKASKUNTZA
GIDA**

**IKUS-ENTZUNEZKO
KOMUNIKAZIOKO
GRADUA**

<http://www.ehu.eus/gkz-csc>

HELBURUAK

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduaren helburua da ikasleak prestatzea **ikus-entzunezko proiektu berrizaleak sortu eta hainbat formatutan gauzatzeko XXI. mendeko hedabideetako euskarrietan** (zinema, telebista, internet, irrati digitala eta multimedia zein transmedia teknologia berriak, besteak beste).

Irrati eta argazki laborategiak, telebista platoak, bideo ediziorako gelak, audio eta bideo digital postproduziorako laborategiak eta grabaziorako ENG ekipo osoak, ikus-entzunezko komunikazioko espezialista bilakatzeko bidean, Fakultateak ikasleei eskaintzen dizkien baliabideetako batzuk baino ez dira.

TITULAZIO HONEK IKASLEARI GAITASUNA EMANGO DIO:

- Ikus-entzunezko komunikazioaren teoriak ulertu eta praktikan jartzeko.
- Arloko ohitura profesionaletan esperientzia lortzeko.
- Gertaerak eta proiektu komunikatiboak modu kritikoan aztertu eta baloratzeko.
- Ikus-entzunezko komunikazioko eduki eta prozesuak garatzeko.
- Iturri desberdinetako informazioa aztertzeke.
- Erraztasun eta eraginkortasunez komunikatzeko.
- Talde lanerako gaitasunak garatzeko.
- Ikus-entzunezko arazoei aurre egiteko irtenbide sortzaileak aplikatzeko.




ELEANIZTASUNA

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduak oinarritzko eta nahitaezko irakasgai guztiak eta hautazkoetako gehienak autonomia erkidegoko bi hizkuntzetan eskaintzen dira, **euskaraz eta gaztelaniaz**. Gradu Amaierako Lana bi hizkuntza hauetako edozeinetan egin daiteke.

Gainera, Fakultateak parte hartzen du aktiboki UPV/EHUren Eleaniztasun Planean, eta ikasturte gero eta irakasgai gehiago eskaintzen ditu **hizkuntza ez ofizialetan**. 2017-2018 ikasturterako, Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduaren ondorengo ingelesezko irakasgaiak eskaintzen ditugu:

- Language Usages in Media
- International Relations
- Documentary Film Forms
- Art Direction
- History of Classic Cinema
- Basque Language, Culture and Media
- Theories of the Communication
- Communication and Advertising: Strategies of Persuasion
- History of the Contemporary World
- Statistics Applied to Communication
- Methods of Research in Communication
- Documentary Film Workshop
- History of Modern and Contemporary Cinema



BI GRADU ALDI BEREAN

Bi gradutako **ikasketak aldi berean** egiteko eskaria aurkeztu ahal du ikasleak lehen maila amaitu eta gero. Gure ikastegiko ikasketa planen diseinua dela eta, bi urte gehiago eginda bigarren gradua amaitu daiteke Komunikazioaren Arloan: Kazetaritza edo Publizitatea eta Harreman Publikoak. Izan ere, bi gradu hauetako bakoitzak hainbat irakasgai partekatzen ditu Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduarekin: 16 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai.

Era berean, Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduak gure Fakultatean eskaintzen diren Gizarte Zientzien Arloko bi graduekin ere partekatzen ditu irakasgaiak: 6 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Soziologiako Graduarekin, eta 7 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduarekin.

IKASKETA-PLANA

KREDITU BANAKETA ETA IKASTORDUAK GUZTIRA

Maila	Adarreko Oinarritzko Irakasgaiak	Beste adar batzuetako Oinarritzko Irakasgaiak	Nahitaezko Irakasgaiak	Hautazko Irakasgaiak	Gradu Amaierako Lana	Guztira
1	48	6	6			60
2	30		30			60
3			30	30		60
4			30	18	12	60
GUZTIRA	78	6	96	48	12	240

Ikasketa-planak guztira 240 kreditu ditu, hau da, 40 irakasgai.

Ikasturteak lauhileko bi ditu, bakoitzak 15 irakaskuntza-aste daukana. Irakasgai guztien ohiko azterketa irakaskuntza amaitu ostean egiten da (urtarrilean edo maiatzean), eta ezohiko azterketa ekainean egiten da.

AIPAMENAK EDO IBILBIDEAK

Nahi izanez gero, ikasleak Graduak bi aipamenetako bat ikas dezake. Aipamena lortzeko bere bost hautazko irakasgaiak gaituta izan behar dira, hirugarren eta laugarren mailatan.

IKUSIZKOEN IKASKETAK

Diskurtso Dokumentalaren Formak

Estetika Korrante Garaikideak

Ikus-entzunezko Diskurtsoak eta beren Dimentsio Mitikoa

Zinema Espainiarra: Zinema Nazionalak, Nortasunak eta Erbestek

Irudia, Generoa eta Nortasuna

MULTIMEDIA PRODUKZIOA ETA ERREALIZAZIOA

Zuzendaritza Artistikoa

Dokumentalen Errealizaziorako Tailerra

Audio Postprodukzioa

Bideosormena eta Bestelako Jarduera Esperimentalak

Diseinu Grafikoa eta Multimedia Inguruneak

Ingurune Ekonomikoaren Analisia

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Ingurune historiko, politiko, soziala eta ekonomikoa adieraztea, eta ekonomia zientzia bezala metodologiaren ezaguera ulertzea. Oinarrizko ezaguera lortzea errealitate ekonomikoa interpretatzeko eta analizatzeko asmoz. Ekonomia jardura aztertzeke tresna eta adierazle nagusiak ezagutzea. Informazio ekonomikoa biltzeko, ulertzeko eta aztertzeke gai izatea.

Edukiak: Merkatuaren mekanismoa. Merkatuaren akatsak. Estatuaren esku-hartzea. Ekonomia-jardueraren analisisirako adierazle nagusiak eta oinarrizko osagaiak. Adierazle monetarioak eta finantzariak. Ekonomiako kanpo sektorearen bilakaeraren analisia. Enplegua eta lan merkatua. Inflazioa: arazoak, adierazleak eta aurre egiteko politikak. Sektore publikoa politika ekonomikoa.

Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Hainbat kontzeptuz jabetzea, hala nola publizitatearen arloko komunikazioaren eta harreman publikoen analisi eta planifikazioa, eta hedabideekin harremanetan jartzeko baliatu ohi diren teknikak eta estrategiak. Ikuspegia zabaltzea informazioaren kudeaketan modu eragingarrian aritzeko, bai barne- bai kanpo-komunikazioaren arloan, edozein delarik enpresa edo erakunde mota.

Edukiak: Komunikazioa zuzendaritza-estrategia gisa. Komunikazio komertziala. Komunikazio korporatiboa: identitatea, kultura eta jarrera korporatiboa. Komunikazio instituzionala eta politikoa. Komunikazio teknikak: Publizitatea, Harreman Publikoak, Patrozinioa, Mezenazgoa, Ekintza Bidezko komunikazioa, Ekitaldien antolaketa, Promozioen komunikazioa, Propaganda, etab.

Ikus-entzunezko Hizkuntza

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Garrantzitsuak eta funtsezkoak diren kontzeptuak ezagutzea eta tresna metodologiko egokiak erabiltzea ikus-entzunezko mezuak (publizitate-irudiak, telebistako erreportajeak, serieak, filmak, etab.) zehaztasun eta koherentzia handiagoz interpretatzeko eta lantzeko. Ikus-entzunezko testuen aurrean izpiritu kritikoarekin aztertzeke beharrezkoak diren gaitasun minimoak garatzea.

Edukiak: Lengoia eta Komunikazioa: irudiaren gizartea, oinarrizko definizioak. Ikus-entzunezko pertzepzioa. Ikus-entzunezko irudikapena. Ikus-entzunezko osagaiak: eszenaratzea, kodratzea eta planoen antolamendua, mugimendua, soinuaren osagaiak. Mugimendua: espazio eta denbora jarraitutasuna, trantsizio-elementuak, muntaketa.

Berrien Idazkera Prentsan

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Kazetaritza-Idazkeraren munduan murgiltzea, hedabide inprimatuei begira. Albiste eta bere osagaiak (titulua, sarrera, gorputza...) lantzea. Kazetaritza-generoak ikastea eta genero horien testu-ezaugarriak bereiztea. Kazetarien betebeharrak zein testuingurutan gauzatzen diren ezagutzea.

Edukiak: Interpretazioa kazeta-jardunean. Kazetaritza-lengoia eta kazetaritza-generoak. Albiste eta horren idazketa. Titulu informatiboa. Informazioaren sarrera. Albistearen corpusa. Gertakarien balorazioa. Informazio-iturriak. Kazetari-jarduna testuinguru legalean. Espainiako hedabideen ekosistema. Interneterako informazioa.

Euskararen Erabilerak Komunikabideetan (euskarako taldea)

Beste adar batzuetako Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Ikasleak hizkuntzaren garapenean duen erantzukizunaz jabetzea. Komunikabideetako genero nagusien hizkuntza-ezaugarriak eta baliabideak identifikatzea eta praktikan garatzeko gaitasunak lantzea. Estilo gomendio nagusiak ezagutzea, eta hizkuntza-auziak kritikoki aztertu eta erabakitzeke gaitasuna garatzea.

Edukiak: Hizkuntza Komunikabideetan: Erronkak. Generoak eta erregistroak: Hizkuntza estrategiak. Komunikabideetako hizkeraren estiloa: Gida-lerro nagusiak.

Gaztelaniaren Erabilerak Komunikabideetan (gaztelaniako taldea)

Beste adar batzuetako Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Hizkuntza baten araudia erregulatzen duten hiru eremuen inguruan hausnartzea: idazkera zuzena, hiztegiaren erabilera ona eta gramatika-arauak menderatzea. Espainieraz edozein formatu zein hedabideetan argitaratutako testuetako erabilera ortografikoak, gramatikalak eta lexikoak ikastea.

Edukiak: Arau linguistikoaren kontzeptua eta Akademien eginkizuna. Espainieraren aldaerak: diatopika, diastratika, diafasika. Akademia, Cervantes Institutua, Fundéu, estilo-liburuak eta interneteko espainierari buruzko hainbat webgune. Ortografia. Gramatika: morfologia eta sintaxia. Lexikoa.

Komunikazioa eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Pertsuasioak egungo gizarteetan duen funtzioaz jabetzea, pertsuasioaren agerpen desberdinak bereiztea eta agerpen guztien oinarri komuna antzematea. Komunikazio egoeraren arabera estrategia eta mezu pertsuasiboak diseinatzea.

Edukiak: Ahozko komunikazioa. Pertsuasiorako sarrera: Ikuspuntu teorikoak. Aktitude eraketa eta aldaketa. Pertsuasio iturria. Mezua: Edukia eta antolaketa. Ezaugarri pertsonalen eragina pertsuasioan. Pertsuasioaren testuingurua.

Komunikazioari Aplikatutako Estatistika

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Komunikazioan gizarte ikerketa egiteko egun garatzen diren hiru lerroak barnebiltzea: kazetaritza-errotitakoa, publizitatean garatutakoa eta ikus-entzunezko komunikazioko ikerketekin harremanetan dagoena.

Edukiak: Ikerketa prozesua eta estatistika ikerketan. Estatistika deskribatzailea eta estatistika inferentzialera sarrera. Datu kuantitatiboen hedapena eta hedabideak.

Informazio Generoak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Informazio genero nagusiak ezagutzea: berria, elkarrizketa, erreportajea eta kronika. Kazetari-irizpidea zimendatzea eta bultzatzea. Informazio-edukia lortzea, egituratzea, laburbiltzea eta idaztea.

Edukiak: Sarrera: Kazetaritza hizkuntza eta estiloa. Kazetaritza generoak. Albiste: Osagaiak eta egitura. Erreportajea. Elkarrizketa. Kronika.

Gaur Egungo Munduaren Historia

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Munduko eta bereziki Europako bilakaera historikoaren ildo nagusiak baloratzea XX. mendean zehar, horrela bizi dugun mundua ulertu ahal izateko. Testu, grafikoa eta mapa historikoak aztertzea. Historialari eta bestelako gizarte zientzialarien liburuei buruzko aipamen kritikoak idaztea.

Edukiak: Bigarren Mundu Gerraren osteko nazioarteko ordena berria. Europaren eraikuntza-prozesua. Herri-demokraziak Europan. Deskolonizazioaren hastapenak. Kontinente amerikarra II Mundu Gerraren amaieratik. Herri afroasiatikoen esnatzea. Mundu kapitalistaren bilakaera. Deskolonizazioaren bukaera. Sistema sozialistaren hondamena eta Sobiet Batasunaren desagertzea. Ordena berri baterantz.

Ikus-entzunezko Sormen Teknikak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezkoen alorreko proiektuen diseinu eta errealizazioarekin erlazioaturiko oinarri teorikoak eta praktikoak ezagutzea. Ikus-entzunezko egitasmo berritzaileak sortu eta abian jartzeko gaitasuna garatzea.

Edukiak: Bideo-seinalea: Oinarri teknikoak, mugimendua, kolorea. Kamerak: motak, oinarriak, osagaiak. Objektiboak: diafragma, enfokea, foku- distantzia, enfoke ingurua. Edizio ez lineala. Argia. Soinua eta mikrofonoak.



Ziberkazetaritzako Idazkera

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 42 h Magistrala; 18 h Gelako Praktikak

Helburuak: Interneteko generoen oinarriak lantzea; haien ezaugarrietan, egituretan, erabileran eta estiloan sakonduz. Hau da, zibergeneroen ezaugarriak, estilo eta narrazio-teknikak aztertzea, banan-banan, hipertestua, multimediatasuna eta elkarreragina bezalako bereizgarrietan oinarrituz. Ohiko informazio-genero, interpretazio-genero eta iritzi-generoekin praktikatzea.

Edukiak:Sarrera: Ziberkazetaritza eta kazeta-idazketa berria. Interneteko testuinguru mediatikoa eta erredakzio lana. Ziberkazeta-mezua interneten: Interneteko kazetaritza-lengoaiaren ezaugarri oinarriak; Ziberkazetaritza-generoak; Bilaketa tresnetarako idazkera eta posizionamendua; Kazetariaren marka pertsonala.

Komunikazio Sistemaren Egitura

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikazio sistemaren gaineko oinarriko ezagutza eskuratzea: osagaiak eta ezaugarriak, haien arteko harremanak nola antolatzen diren eta zein diren gai eta dinamika nagusiak. Informazio iturriak ezagutu eta informazio esanguratsua identifikatu eta antolatzea.

Edukiak: Sistema eta egitura. Kultur industriak eta ikus-entzunezkoa. Kultura eta komunikazio politikak. Egiletza eta eskubideak. Komunikazio taldeen estrategiak: Balio katea eta negozio ereduak. Ikus-entzunezko industria, multimedia eta internet.

Ikus-entzunezko Narratiba

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezko diskurtsoen funtzionamendua ulertzea. Kontaketen oinarri narratiboak definitu, hierarkikoki sailkatu eta aktiboki ulertzea, orokorrean zein bere ikus-entzunezko adierazpenean.

Edukiak: Sarrera (mundua, diskurtsoa, kontaketa, edukia, adierazpena, diskurtso-estrategiak, azterketa, semiotika). Ikus-entzunezko adierazpena. Lengoaia-jokoak. Kontakete-teknikak. Ekintzaren logika, gaiak, figuratibotasuna. Estrategia diskurtsiboak.

Ikus-entzunezko Sormen Prozesuak

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Prozesu produktiboaren ikuspegi global bat hartzea. Produktu audiobisualen sortze, produkzio eta errealizazioaren oinarriko lanak burutzeko prestatzea.

Edukiak: Telebistako lan taldea. Gidoia: Proiektuen aurkezpena; Lan mota desberdinak. Gidoi literarioa. Gidoiaren desglosea. Irudiaren konposaketa. Kamera mugimenduak. Jarraitasun bisuala.

Nazioarteko Harremanak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Nazioarteko Harremanak ikasketari sarrera orokorra egitea. Gaur egungo nazioarteko gizartearen genesia eta egungo egoera aztertzea eta baloratzea. Gizateriak XXI. mendean maila globalean aurre egin behar dizkion prozesu, arazo eta erronka nagusiak

Edukiak: Nazioarteko Harremanen sarrera teoriko-kontzeptuala. Nazioarteko Gizartearen Aktoreak. Nazioarteko Sistemaren Egitura. Nazioarteko Gizartearen oinarriko prozesuak. Gizateriak Aro Globalean dituen erronka nagusiak.

**Komunikazioaren Teoriak**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikabideen Sistemaren eta Iritzi Publikoaren arteko harremanak analizatzea, gai garrantzitsu batzuen inguruan. Gaiari buruzko ikerketa zein komunikazio teoria nagusiak baloratu, era kritikoa.

Edukiak: Komunikazioari buruzko pentsamendu teorikoa. Informazioaren gizartea. Komunikazioa eta kultura. Iritzi publikoa.

Dokumentazio Iturrien Kudeaketa

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Alfabetizazio informazionalaren inguruko ezagutza orokorrak eskuratzea, ikasleak gaitasuna izan dezan ikaskuntzan zein lanean behar dituen informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko, eta, halaber, modu etiko eta eraginkorrean erabiltzen jakin dezan. Eduki espezializatuko informazioa eta komunikabideei eta lan informatiboari lotutako teknikak eskuratzeko baliabideak lantzea, iturrien digitalizazioa eta horiek internet bidez nola eskuratu kontuan hartuta.

Edukiak: Dokumentazio Informatiboa: zer da eta zertarako balio du. Informazio- eta Dokumentazio-iturriak: informazioa non aurkitu, erreferentziako lanak. Prozesu dokumentala: informazioa nola hautatu, analizatu eta gorde. Ikerketa lanen metodologia. Aipuak eta erreferentzia bibliografikoak. Gradu Amaierako Lanak. Informazioa berreskuratu. Interneti buruzko hausnarketa. Dokumentazioaren aplikazioa Ikus-entzunezko Komunikazioan.

Informazioaren Zuzenbidea

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Albisteak idazteko eta beste informazio-produktu batzuk egiteko, adierazkorrak, publizitatezkoak edo aisialdikoak, egiaztatze- eta erredakzio-teknikak modu egokian erabiltzea, era horretan lanbidearen egikaritzan erantzukizun juridikoak (penalak, zibilak, lan-eremukoak edo administrazio-eremukoak) ekiditeko. Adierazpen- eta informazio-askatasunen eduki eta muga zehatzekin zerikusia duten alderdietan sakontzea. Eremu honetan ezagutza sakonak lortzea.

Edukiak: Informazioaren Zuzenbidea. Adierazpen- eta informazio askatasunak. Kanpo- eta barne-mugak. Ideologia adierazteko askatasuna eta haren mugak. Parte-hartze murriztaileak. Informazioa jasotzeko eskubidea. Sekretu ofizialak eta botere publikoen informaziora sartzeko mugak. Kontzientzia-klausula. Sekretu profesionala. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak. Zuzenketa-eskubidea. Gazteen eta haurren babesak. Informazioaren profesionalaren estatutu juridikoa. Ikus-entzunezko hedabideen erregimen juridikoa.

Pentsamendu Politikoaren Historia

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Aro moderno eta garaikideetan botere politikoaren auziarekin arduratu diren eta eragin handikoak izan diren pentsalarien ideia nagusiak jorratzea. Filosofia politikoaren hausnarketa-esparruan oinarrituta, ikuspuntu normatiboa eta abstraktoa garatzea. Gure egunetako ildo ideologiko nagusien ezaugarri aipagarrienak ulertzea.

Edukiak: Teoria politikoaren historiari buruzko ohar metodologiko zenbait. Greziar aitzindariak. Morala eta politikaren arteko lehia: Makiavelo. Absolutismoa eta kontraktualismoa: Thomas Hobbes. Liberalismoaren sorrera: John Locke. Jean-Jacques Rousseau, Frantziar Iraultza eta erantzun kontserbadorea: Edmund Burke. Liberalismoaren ildoa: John Stuart Mill. Pentsamendu iraultzaileak: Karl Marx eta anarkismoa. Totalitarismoak eta nazionalsozialismoa.

Komunikazioko Ikerketa Metodoak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Ikerketa zientifikoaren arloan prestatzea. Komunikazio, marketin eta harreman publikoen eremuetan, kontsultarako eta zuzendaritzarako lan postuak betetzeko baliagarriak diren gaitasunak lortzea.

Edukiak: Ikerketa eta bere prozesua. Ikerketa proiektua. Ikerketa kuantitatiboa inkestaren bitartez. Ikerketa kualitatiboa elkarrizleta/talde elkarrizketaren bitartez. Ikerketaren emaitzak aurkeztea.

Ikusizko Formen Analisisia

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Ikusizko testuen analisiaren oinarri metodologikoak deskribatu, eta horiek praktikan jarri modu egoki eta zuzenean. Diskurtso-analisisa kontzeptualki finkatu irudien azterketak dituen berezitasunei erreparatuz.

Edukiak: Analisisaren oinarriak. Ikusizko testualizazioaren berezitasuna. Irudiaren analisisa burutzeko metodologia ezberdinak. Maila plastikoa. Maila figuratiboa.

Gidoigintza I: Fikzioa

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Idazketa dramatikoaren oinarriak ezagutu eta aplikatu: bere alde formalak, genero konbentzioak eta narrazio-estrategiak. Idazketa dramatikorako teknikak eta prozesuak bereizi, gidoi eraketari aplikatuz. Ikus-entzunezko proiektuen sormen, aurkezpen eta defentsarako gaitasunak garatu.

Edukiak: Fikziozko gidoiaren definizioa. Sormen prozesuaren hasiera. Narrazio egiturak eta estrategiak. Pertsonaiak sortu. Eskaleta eta kate kausala. Gidoi literarioa idazteko estrategiak. Sekuentzien eraketa. Elkarrizketa. Narrazio-baliabideak. Proiektuen aurkezpena.

Errealizazioa I

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezko produkzioarako ezinbestekoak diren kontzeptu teoriko eta praktikoa jorratu. Ikus-entzunezko eta multimedia produktuak burutzeko prozesuak zuzendu. Ikus-entzunezko proiektu baten ekoizpen eta garapen fase desberdinekin lotutako teknologia eta adierazpen baliabideak erabili.

Edukiak: Gidoiaren desglosea, gidoi teknika eta storyboard-a. Grabaketa eta konpresio formatuak bideo eta audioan. Soinu bandaren diseinua eta sorrera. Argiztapen diseinua eta teknikak. Kamara bakarrek teknika: planifikazioa eta grabaketa. Postproduktzio digitala bideoan.

Bitartekaritzak eta Komunikazioa

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikabideetako edukietan komunikazio arlo ezberdinek duten eraginaren azterketa egitea. Gero eta konplexuagoa den komunikazio sistema honetan, ez dago mota bakarreko eraginik; horregatik, gizebanakoak, erakundeak, lan-moduak, teknologia, ideologia eta bestelakoak aintzakotzat hartuz, igortzen digutena ulertzea.

Edukiak: Bitartekaritzak eta komunikazioa. Prentsa, irrati eta telebistako profesionalak. Profesionalen jarrerak eta lanbide-ideologiaren mitoak. Medioen antolamenduak. Produktzio-errutinak: Informazioaren bilketa, iturriak. Hautaketa kriterioak. lanketa/aurkezpena. Albiste-baloreak. Komunikabideetatik kanpoko tartekaritza. Herri kazetaritza.

Diskurtso Dokumentalaren Formak (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Diskurtso dokumentalen forma eta estrategia narratiboak ezagutzeko eta aztertze gaitasunetan sakontzea. Eredu narratiboak bereizi eta hainbat material dokumental ikusi eta aztertu, besteak beste, argazkiak, filmak, ikus-entzunezko piezak eta interaktiboak.

Edukiak: Dokumentalaren oinarri kontzeptualak. Sinetsi-Egitearen Formak: Dokumentutik dokumentalera. Dokumentalaren klasikoak. Postmodernitatea eta dokumentalismoaren krisia. Dokumental-praktika garaikideak. Dokumental-praktikaren dimentsio artistikoa.

Zuzendaritza Artistikoa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Jakintzagaia, espazioaren eraikuntza eta ikus-entzunezko eskenaratze prozesuetan parte hartzen dituzten formak, prozedurak eta praktika artistikoetarako gaitasunak garatu, guzti hori, ikus-entzunezko proiektuen garapen eta ekoizpen prozesuetan testuinguratuta.

Edukiak: Zuzendaritza artistiko zinematografikoaren betekizun eta helburu nagusiak. Zinema espazioaren antolaketa. Zinemaren arkitektura eszenografikoa. Zuzendaritza artistikoko proiektuaren egitura eta garapena. Dekoratuak eta iruzurrak. Zinemaren arkitektura eszenografikoa. Hiri-arkitektura zinemaren.

Gidoia II: Ez-fikziozko Programak

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezko narratibaren estrategia desberdinak ezagutu eta aztertu. Ekoizpenaren kudeaketa, errealizazioa, zuzendaritza artistikoa, eta oro har ikus-entzunezko obra bat burutzeko beharrezkoak diren jarduera guztietarako esparru profesionalean ezinbesteko lan tresna den dokumentua egin.

Edukiak: Errealitatea, errealismoak, errepresentazioa eta dokumentalaren kontakizuna. Eraikuntza eta krisia: Errealaren ondorioa? Diskurtso dokumentalaren zenbait eredu. Dokumentala eta modernitatea. Telebista formatuak eta generoak. Plataforma anitzeko gidoiak.

Errealizazioa II

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezko produktuak sortu, ekoiztu eta errealizatzeko gai izateko trebatzea. Ikus-entzunezkoetako teknika nagusi eta produktio moduetan sakontzea. Produktzio prozesuaren ikuspegi orokorra eta osoa edukitzea. Ikus-entzunezko ekoizpeneko lan nagusiei ekiteko gauza izatea.

Edukiak: Ikus-entzunezko produktu multikamera eta zuzeneko saioren planifikazio eta grabazio teknikak. Arte zuzendaritza eta kasting zuzendaritzaren teknika eta prozedura orokorrak. Grabazio formatuak. Ikus-entzunezko produktu baten oinarritzko produktio dossier baten garapena. Ikus-entzunezko proiektuen garapena eta defentsa. Argiztapena. Audioa. Muntaiak vs. Edizioa. Edizio eta postproduktzio teknika aurreratuak. Produktuen broadcast kalitatea eta esportatzeko era desberdinak.

Pertsona Arteko eta Taldeko Komunikazioa

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Jendaurrean hobeto hitz egitea. Erretorikaren oinarriko tresnak, zein pertsonarteko eta taldeko komunikazioaren arauak eta egiturak ikasi eta erabiltzea. Pertsuasiorako gaitasun edo abilezia komunikatiboak garatzea.

Edukiak: Jende-komunikazioaren prozesua. Erretorika eta interaktibitatea Sarean. Publiko aurrean hitz egitea, beldurra eta autokonfiantza. Ahozko pieza baten prestaketa eta erakusketa. Hizkuntza eta generoa. Eztabaidaren artea.

Programazio Estrategiak

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Programazioaren esanahia, programatzailen lana eta audientziaren portaera eta kontsumoak zelakoak diren lantzea. Irratiaren eta telebista tradizionalaren eskaintza nola artikulatzen den aztertzea. Interneten etorrerarekin, programazio gintzan eman diren aldaketak jorratzea, eskaintza ez-linealaren eragina mahai gainean jarriz.

Edukiak: Irrati-telebistaren audientzia-ikerketa. Audientzia-ikerketaren kontzeptuak eta indizeak. Programazio gintzaren esangurak. Programazioan eragiten duten faktoreak. Programazio saila irratiaren eta telebistan. Irratigintzaren panorama. Irrati-eskaintza. Irrati-kontsumoa. Irratirako programatzen. Telebistagintzaren panorama. Telebista-eskaintza. Telebista-kontsumoa. Telebistarako programatzen.

Estetika Korrante Garaikideak (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Bi azken mendeetan arte munduan gertatutako prozesuak ezagutzeko. Mugimendu artistikoak desberdintzea eta haien atzean dauden planteamendu estetiko eta filosofikoak identifikatzea. Korrante artistiko eta sormenaren artean dauden erlazioak lantzea, bai hedabideetako arteetan, bai eta publizitate eta hedabideetan agertzen diren ikus-entzunezkoetan.

Edukiak: Arrazionalismo eta Erromantizismo. Argazkigintzaren sorrera. Irudia mugimenduan: Zinemaren sorrera. Abangoardia eta Modernitatea. Psikoanalisi eta Surrealismoaren sorrera. Abangoardia aplikazio iraultzaile gisa. Informalismoa II Mundu Gerraren ostean. Pop garaia: Kontsumo-gizartea eta irudia. Diskurtso kontzeptuala eta irudia. Postmodernitatearen piztea.

Dokumentalen Errealizatorako Tailerra (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezko proiektu dokumental bat garatzea, produktio fase guztietan zehar: ikerketa, ideia, ideiarekin garapena, gidoiak, ekoizpen-plana, grabazioa eta edizioa, banaketa eta komertzializazioa.

Edukiak: Dokumentalaren erreproduktzioa: errealitatearen ikerkuntza eta dokumentazioa. Ikuspuntuaren eraikuntza: errealitatearen tratamendua eta dokumental ereduak. Dokumentalen ekoizpen eta errealizazio teknikak. Dokumentalen hedapena, banaketa eta komertzializazioa.

Euskararen Arauak eta Erabilerak (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikabideetako profesionalen euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, hizkuntzaren normalizazioan eta biziberritzean duten erantzukizunaz jabetzeko.

Edukiak: Hizkuntzaren arauak eta erabilerak komunikabideetan. Komunikabideetako testuak: Hizkuntza Ezaugarriak; Testugintza. Kontsulta-Baliabideak.

Ekoizpenaren Kudeaketa

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Produkzio dosier bat nola egin eta nola aurkeztu ikastea, haren alderdi ezberdinetan: sorkuntzakoa, administratiboa eta ekonomikoa. Landutako dosierra euskal ikus-entzunezko industriako adituen aurrean modu publikoan aurkeztea, Pitching saio batean.

Edukiak: Ikus-entzunezko produkzioa sormen proiektu/prozesu gisa baina baita proiektu/prozesu ekonomikoa modura ere. Ikus-entzunezko sektorea. Institutuzioak, ikus-entzunezko politikak eta diru-laguntza nagusiak. Ikus-entzunezko jardueraren lege kontuak. Aurrekontua. Ikus-entzunezko lanaren banaketa eta komertzializazioa.

Zinema Klasikoaren Historia

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Zinemak XX. mendean izan duen bilakaera historikoa ezagutzeko, kontutan izanda esparru garrantzitsuen izan dela ikus entzunezko formen eraketan. Garai honetako edozein film mota doitasun metodologikoaz aztertzea.

Edukiak: Zinearen jatorriak. Zine narratibo baterantz. Alemania Lehen Gerra ostean. Sobietar zinea. Zine mutuaren goren aldia. Marjinalak eta abangoardistak. Hollywood, 30. hamarkada eta zine klasikoa. 30. hamarkada Europan. Hollywoodeko goren aldia. Errealismo berriaren abentura. Behatzaile urrun batentzat. Zine modernoaren oinarriak.

Irrati Ekoizpena eta Errealizazioa

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Seminario; 7 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak

Helburuak: Irratia, soinu-baliabideak, audio-edizioa eta irrati-ekoizpena ezagutzeko. Irrati-ekoizpen eta errealizazioari buruzko ahal den ikuspegi zabalena hartzea, irratsaio baten ideia sortzen denetik soinu bihurtzen den bitartean.

Edukiak: Irratia, hedabide ikustezina. Irrati-ekoizpena esparru digitalean. Ekoizpenaren errutinak: ekoizpenaren errutinizatzea eta irrati-egitasmo sortzaileak. Erritmo eta jarraitutasuna irrati-programazioan. Irratia gaur egun eta irratiares eskenatoki berriak.

Internet eta Kultura Industriak

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Seminario; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Zinematografia-, musika-, telebista-, liburuen eta prentsa industrietan Internetek eduki duen eragina aztertzea.

Edukiak: Kultura eta komunikabide masiboen eboluzioa. Internet, komunikabide digitalak eta konbergentzia. Musikaren industria. Telebista. Zinema. Prentsa eta liburua.

Ikus-entzunezko Diskurtsoak eta beren Dimentsio Mitikoa (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Mitoek ikus-entzunezko testuen eraikuntzan jokatu eta jokatzeko duten rola ikuspegitik sakontzea, testu horien barnean.

Edukiak: Mito kontzeptura hurbiltze ezberdinak. Mitoa eta komunikabideak. Heroi mediatikotik hero mitikoraino. Egitura narratiboa. Erritu komunikatiboak.

Audio Postprodukzioa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 7 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Ikus-entzunezko produktu baten sonorisatze-prozesu osoa ezagutzeko, soinuak mikrofonoetatik jasotzen diren soinu-bandaren azken bertsiora bitartean.

Edukiak: Ikus-entzunezko ilusioa eta "hiru entzuketak". Ahotsa. Musika ikus-entzunezkoan. Isiltasunaren adierazpen-balioa. Hotsak eta soinu-efektuak. Zinemarako soinuaren ezaugarriak. Soinu zuzena eta erreferentziala. Soinu-bandaren muntaketa eta edizioa. Zine-bikoizketaren teknikak. Zarata murrizteko zine-sistemak.

Bideosormena eta Bestelako Jarduera Esperimentalak (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 7 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Sormen bideografikoak izan duen inpaktu ikastea, aztertzea eta interpretatzea, bai arte garaikidean bai adierazpenaren eta komunikazioaren eremuan.

Edukiak: Bideoa, sormena, esperimentazioa: Bideoartean sustraia. Bideoa bere kokagune historikoan. Praktika ezberdinak. Esperimentazioa aro digitalean.

Komunikazioa Euskaraz: Hedabideetarako Hizkuntza Estrategiak (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Medioen testuinguru profesionaleko eskakizunei egokiro erantzuteko funtsezkoak diren ahalbide komunikatibo eta linguistikokoak sendotzea eta garatzea; une oro gogoan izanda komunikabideetako testu bat planifikatzeko, ekoizteko zein hedatzeko prozesuetan dauden erabaki linguistiko-diskurtsiboak.

Edukiak: Testua testuinguruari begira. Komunikabideetako testuen ahoskera: Euskararen Ahoskera Zaindua. Testuak egituratzeko estrategiak: generoaren arabera, euskarriaren arabera, interneten. Testuratzeko teknikak komunikabideetako testuetan. Testuak eta haien hedapena: testu-idazketa hedapen-estrategiaren arabera.

Zinema Modernoaren eta Garaikidearen Historia

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Zinearen bilakaeran, joan den mendeko 60. hamarkadatik gaur egun arte, eta bere eraketa artistikoan sortutako arazo nagusien ikuspegi orokorra hartzea. Garai hauetako edozein film mota doitasun metodologikoaz aztertzea.

Edukiak: Modernitatearen apurketak. 68ko hausturak. Hollywood postklasikoa. Maverick eta erresistenteak. Egile-inozia birdefinituz. Beste ahots, beste esparru: kanpoalde geografikoak. Kanpoalde estetikoak. Jean-Luc Cinéma Godard. Hollywood gaur. Post-zinema. Zinea kontsumitzeko era berriak. Ez-fikziozko zinea.

Komunikazioaren Egungo Joerak

Nahitaezkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

Helburuak: Ezagutzaren gizartea aztertzea da marko gisa, aldi berean positiboak eta arazotsuak diren ziberesfera eta mediasfera bereziki fokatur. Aniztasunaren ikuspegitik estatu espainoleko zein Euskal Herriko kultur eta komunikazio ekosistemak ezagutzeko.

Edukiak: Komunikazio sareak: Sare gizartea? Egiletza eta jabetza mota berriak. Kultura eta komunikazioa merkaturatzeko eta finantzatzeko modu berriak. Kontsumo modu berriak. Ikus-entzunezko produkzioa eta teknologia: konbergentzia. Kultura eta komunikazio politika berriak. Identitateak gaur egun.

Zinema Espainiarra: Zinema Nazionalak, Nortasunak eta Erbesteak (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Zinema espainiarraren ezagutzan sakontzea, zinema hori interesgarria delako bere balio artistiko zein soziokulturalagatik. Zorroztasun metodologikoaz aztertzea bai zinegile espainiarrek beste herrialde batzuetan egindako filmak eta bai bestelako jatorri nazional edo kulturaleko zinegileek egindakoak ere.

Edukiak: Zinema espainiarraren ezaugarri estetikoak. Gogoeta metalinguistikoak, melodramak eta umore isila. Herri-artearen eklosioa. Gudak eragindako zauria: dokumentuak eta fikzioak. Modernitatearen populismoaren aurrean. Metafora eta borroka politikoa. Posmodernitatearen zantzuak zinema espainiarrean.

Irudia, Generoa eta Nortasuna (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

Helburuak: Komunikazio eraginkorra eta diskriminaziorik gabekoa aurrera eramateko tresnak ezagutzeko, bai ikus-entzunezkoen bitarteko kontakizunak sortzeko momentuan (publizitate iragarkiak, bideoak, filmak, etab.) edota komunikazioaren kudeaketa burutzeko orduan.

Edukiak: Irudia, generoa eta identitatea definitzen. Generoa eta teoria feministaren oinarriko kontzeptua. Generoaren errepresentazioa. Identitatearen errepresentazioa. Errepresentazioaren "dekonstrukzioa".

Diseinu Grafikoa eta Multimedia Inguruneak (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu
Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 14 h Laborategiko Praktikak

Helburuak: Begirada kritikoa garatzeko eta lan grafikoak baloratzeko, edo diseinu propioak sortzeko tresnak ezagutzeko. Lan grafikoak garatzeko beharrezko prozedurak ikastea.

Edukiak: Diseinu grafikoaren oinarriak. Animaziozko legeak eta mugimendu-lengoaia. Motion graphics. Stop Motion. Efektu bisualak.

GRADU AMAIERAKO LANA

12 kreditu



PRAKTIKAK ENPRESETAN

Hezkuntzarako lankidetzak praktikek aukera ematen diete ikasleei **enpresa eta erakunde publiko zein pribatuen errealitatera hurbiltzeko** eta, hartara, langunean bertan ezagutzeko laneko ohiturak eta trebetasunak. Horrela, beren prestakuntza akademikoa osa dezakete eta lan esperientzia eskuratu, titulazioan ikasitakoarekin zerikusia daukaten atazak gineez.

Praktikak borondatezkoak dira, baina ia ikasle guztiek egiten dituzte, graduako **hirugarren eta laugarren mailatan**. Fakultateko irakasleen tutoretzapean egiten dira, eta haiengatik ikasleei 6 kreditu aitortzen zaizkie, hautazko irakasgaiekin egiten den bezala.

Gure praktika programetan parte hartzen duten ikasleen gogobetetze maila altua ikusteak animatu egiten gaitu etengabe hobetzen jarraitzera gure ikasleak laneratzeko abian dauzkagun prozesuetan.

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduako ikasleek praktikak egiteko 100 enpresa, instituzio eta fundazio baino gehiago dauzkate beren esku: Ikus-entzunezko ekoiztetxeak (ITESA, Ediciones Foro Digital, Media Attack, Bagnet, Baleuko, K 2000, Pausoka, Basque Films...); Hedabideak (EITB, Noticias Taldea, RTVE, Vocento Taldea, ATRESMEDIA, Mediaset...); Argazkigintza estudioak; Elkarreak; etab.

Fakultateko webgunean lauhilabeteko bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien informazio gaurkotua ikusgai dago: enpresa, eginkizunak, betebeharrak eta ordainsaria.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Graduko bigarren mailatik aurrera, ikasleek bi mugikortasun programatan parte har dezakete, egonaldiak egiteko atzerriko eta estatuko beste unibertsitate batzuetan ikasten. Ikastaldiaren epea aukera dezakete: lauhileko bat edo ikasturte osoa.

Hauek dira mugikortasun programak:

1. **Erasmus+**, Europako unibertsitateetarako: Alemania, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Suedia, besteak beste.
2. **UPV-AL**, Latinoamerikako unibertsitateetarako: Argentina, Brasil, Kolonbia, Mexiko, Peru, Txile, besteak beste.
3. **Beste Norakoak Programa**, AEB, Kanada eta Hego Koreako unibertsitateetara joateko.
4. **SICUE**, Estatu Espainiarreko unibertsitate nagusien arteko trukeerako.

Nazioarteko mugikortasun programetan ikasleek ingelesez, frantsesez edo alemanez ikas dezakete. Horretarako, ikasleak hizkuntza horietan gaitasuna daukala egiaztatu beharko du.

Mugikortasuna bi norabideetan da, hau da, gure ikasleak atzerriko unibertsitateetara doazen bezala bolada batez ikastera, gure Fakultateak ere urtean atzerriko 100 ikasletik gora hartzen ditu. Ez da, beraz, ezohikoa gure ikasleak atzerriko ikasle horiekin ibiltzea ikasgeletan, laborategietan eta beste espazio batzuetan.

